

Esp. zk.: 2026KOPR0007

Gorka Artola Alberdik, Bergarako Udaleko Alkateak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 atalean xedatutakoaren arabera, gaia aztertu eta ebazpena eman dut.

Gaiaren azalpena:

Bergarako Udalak, 2026ko martxoaren 26ko Alkate Dekretuaren bitartez, Askagain edo Iturriberri parkean dagoen kantina edo zerbitzu-eraikinaren erabilera eta ustiaketa adjudikatzeko deialdi publikoa ireki zuen.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen iragarkia 2026ko apirilaren 20an.

Proposamenak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izanda, ziurtatu da ez dela interesdunik aurkeztu. Ondorioz, Alkateak 2026ko maiatzaren 13an emandako dekretu baten bidez erabaki zuen hutsik aitortzea Askagain edo Iturriberri parkean dagoen kantina edo zerbitzu-eraikinaren erabilera eta ustiaketa adjudikatzeko deialdi publikoa.

Batzordeburuak proposatu du Askagain edo Iturriberri parkean dagoen kantinaren erabilera eta ustiaketa berriro deialdi publikora ateratzea (2026KOPR0007).

Erabakia hartzeko kontuan hartu dena:

Batzordeburuaren proposamena eta udaleko nekazaritzako ingeniari teknikoaren txostena.

Hori guztia kontutan izanik, honako hau

ERABAKI DUT

Lehena.- Askagain edo Iturriberri parkean dagoen kantinaren erabilera eta ustiaketa adjudikatzeko baldintza administratiboan eta teknikoan pleguak onartzea, kontratazioa prozedura irekiaren eta arruntaren bidez eta irizpide-aniztasunez egiteko.

Bigarrena.- Erabakia jakinaraztea udal kontu-hartzaileari.

Erabakiaren aurkako errekurtsuak:

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

Honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua edo administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daitezke.

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertze errekurtsua aurkez dezake, 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena):

- Epea: Hilabete bat, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

- Non: Alkatetzara jo behar da.

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztailearen 13ko 29/1998 Legearen 25. eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik:

- Epea: Bi hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.
- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

c) Berraztertze errekurtsoaren erantzunaren aurka jotzeko:

- Epea: Bi hilabete, berraztertze errekurtsoaren erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Aldiz, administrazioak berraztertze errekurtsoa erantzun gabe utziko balu, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, berariazko araudiaren arabera presuntziosko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

Honela jasota gera dadin eta behar diren ondorioetarako, Alkateak agindu eta izenpetzen du eta nik, Idazkariak, ziurtatzen dut, Bergaran, dekretuaren datan.

Alkatea
Gorka Artola Alberdi

Idazkaria
Xabin Juaristi Arrieta

